



## **2023-2024 ikasturtean Oiartzungo ikastetxe edo guraso elkarteek antolatutako hezkuntza arautuz kanpoko ekintzak sustatzeko diru laguntzen oinarriak**

### **1. ARTIKULUA.- Xedea eta helburuak.**

Ebazpen honen xedea da 2023-2024 ikasturtean Oiartzunen kokatuta dauden ikastetxeek edo bertako guraso elkarteek antolatutako hezkuntza arautuz kanpoko ekintzak gauzatzeko diru laguntzen oinarri arautzaileak ezartzea. Zehazki, bi dirulaguntza mota arautzen ditu ebazpen honek:

- Ikastetxe edo guraso elkarteek antolatutako hezkuntza arautuz kanpoko jarduera programa, ikastaro edo tailerrak.
- Ikasturte amaierako jaialdien antolaketarako dirulaguntzak.

Dirulaguntza hauetan kontuan izango da Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2022-2024rako diru laguntzen Plan Estrategikoa, eta 2005eko Berdintasun Legeak 3. tituluari jasotzen duena. Honen arabera, 16, 18.4, 23. eta 24.2 artikuluetako printzipio orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginte guztiei aplikatuko zaizkie baita erakunde pribatuei ere, baldin eta Erkidegoko herri aginteetako batekin kontratuak edo lankidetzak-hitzarmenak sinatzen badituzte, edo herri-aginte horiek emandako laguntzen edo diru-laguntzen onuradunak badira.

Beraz, pertsona edo elkarte onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea.

### **2. ARTIKULUA.- Onuradunak eta parte-hartze baldintzak.**

Oro har, dirulaguntza hauetarako aukera izan dezakete Oiartzungo ikastetxeetan hezkuntza araututik kanpo jarduerak antolatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak ezartzen duen moduan.

Oiartzundik kanpoko pertsona edo erakundeen kasuan, Ordenantza Orokorrak ezartzen dituen irizpideak jarraituko dira.

Ezingo dute dirulaguntzarik jaso deialdi honen bidez bere izaera eta helburuak direla eta, udalaren beste arlo edo erakunde autonomo batzuen, beste programa baten edo batzuen bidez bideratu behar direnak. Dena den, dagokion erakunde edo udal arloetara bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.

Ez zaie dirulaguntza emango ondorengo entitateei:

- Elkarteak sexu-bereizkeriagatik zigor administratiboa edo penala jaso duenean.
- Erakundeak edo entitateak bere helburuetan, onarpen-sisteman, funtzionamenduan, ibilbidean edo jardueretan emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak diren edo argi eta garbi bereizkeriakoak diren kontuak edo alderdiak dituztenei.



- Ezingo dute onuradun izaera eskuratu beren baitan gizon eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea berdintasun egoeran gauzatzea galarazten duten elkarteek, salbu eta, sexu bakarreko kideek osatutako elkarteak izanik, helburu nagusia gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea edo emakumezkoen nahiz gizonezkoen berariazko interes eta beharrak sustatzea dutelarik.

Erakunde onuradunak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira.

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak orokorrean euskaraz ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdín jokatuko du.

### **3. ARTIKULUA.- Diru laguntzen zenbatekoa eta irizpideak**

Dirulaguntza lerro bakoitzaren zenbatekoa eta irizpideak I eta II. eranskinen arabera emango dira. Irizpide horiez gain, honako ezaugarri hauek lehenetsi eta positiboki baloratuko dira:

- Elkarteak eta eskolak bere jarduerak burutzeko, Udalaren ekarpena ez ezik beste finantzabide batzuk ere bilatzeko egiten dituen ahaleginak.
- Hainbat jarduera, proiektu edo ekintza beste elkarte edo entitate batzuekin elkarlanean egitea, herriari benetako ekarpen aberats eta askotarikoa eginez.
- Belaunaldien arteko ibilbidea eta transmisioa bermatzea eta elkartearen biziraupena ziurtatzea, bereziki bere lana herrian zabaltzen eta hedatzen dutenena (sozializazioa, jende berriaren inplikazioa,...)
- Oiartzungo Udalaren Diru Laguntzen Ordenantza Orokorrak ezartzen dituen euskara, berdintasun eta ingurumen irizpide orokorrak betetzea.

### **4. ARTIKULUA.- Diruz lagunduko ez diren gastuak.**

Ez da dirulaguntzarik emango honelako gastuetarako:

- Oiartzungo udalerritik kanpo gauzatzen diren ekitaldietarako.
- Udal sail beraren edo beste udal sail baten berariazko eskumenekoak diren eta horien laguntza edo hitzarmen baten barruan sartzen diren ekitaldiak, hala nola, kirolarekin edo euskararekin zer ikusia dutenak.
- Dirulaguntza ematen den ikasturtean ez, baizik eta beste batean gauzatuko diren jarduera edo eskolaz kanpoko ekintzen programak prestatu edo alde zurreko lanak egitea xede duten ekintzak.

### **5. ARTIKULUA.- Eskaerak aurkezteko lekua eta dokumentazioa**

Eskaerak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskaera orrietan. Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Prozedura



Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aitutzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Dirulaguntzaren eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. Eskaera orria.
2. Elkarre, erakunde edo interesatu eskatzailearen IFZaren fotokopia, hala badagokio.
3. Proiektuaren, jardueraren edo programaren txostena. (I. eranskina)
4. Programaren gastuen eta sarreraren aurrekontua (II. eranskina)
5. Zinpeko aitortpena, behar bezala sinatuta (III. eranskina)

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Oiarzungo Udalak bitarteko elektronikoen bidez egingo ditu deialdi honetarako beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak, datu elkarreragingarri hauek lortzeko:

- Identitatea (pertsone fisikoen kasuan).
- Eskaera egiten duen elkarre, erakundeak edo interesatuaren kontu korrantearen titulartasuna
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea.

Horiek guztiak, interesdunak eskabidean berariaz aurkakorik adierazi ezean; aurka azalduz gero, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu eskatzaileak:

- Nortasun Agiriaren fotokopia (pertsone fisikoen kasuan)
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzen duten ziurtagiriak.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikulua arabera, Oiarzungo Udalak ezin baditu agiri horiek elektronikoki bildu, salbuespen gisa, eskatu ahal izango dio interesdunari horiek aurkezteko.

Eskatzaileak, diru laguntzen oinarri honetako eranskin bakoitzeko eskaera bat egin beharko du.

## **6. ARTIKULUA.- Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea**

Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorrak eta Udal Ordenantza Orokorrak ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio ezen, hori egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 23. artikuluan aurreikusitako moduan.



## **7. ARTIKULUA.- Epeak**

Eskaerak, dirulaguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabete bateko epean aurkeztu beharko dira.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza orokorrak 20. artikuluan aipatzen duena jarraituz.

## **8. ARTIKULUA.- Beste diru laguntzekin bateragarritasuna**

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako diru-laguntzekin. Bateragarritasunari buruz sortu daitezkeen zalantzak argitzeko, Oiartzungo Udalaren diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokorrak 14. artikuluan finkatzen dituen irizpideak jarraituko dira.

## **9. ARTIKULUA.- Emateko prozedura**

Dirulaguntzak emateko prozedurak, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak IV. Tituluan (22-23 artikulua) zehazten diren pausoak jarraituko ditu, bertan azaltzen diren baldintzekin:

- Kultura arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatuko ditu, txostena egingo du eta dagokion udal organoari proposamena luzatuko dio dirulaguntzak banatzeko.
- Udalak, alkatetzako dekretu bidez behin-behineko proposamena onartuko du, hamar eguneko epea eskainiz interesatuei alegazioak aurkezteko. Prozeduran pertsona interesdunek argudiatutakoak beste egintzarik, alegaziorik edo frogarik agertzen ez denean, entzunaldi-izapide hori bazter utzi ahal izango da. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.
- Aurkeztutako alegazioak (baleude) aztertu ondoren, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da. Proposamen horrek dirulaguntzaren emakidarako proposatzen dituen eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa adierazi beharko ditu, bere ebaluazioa eta hori egiteko erabilitako balorazio-irizpideak adierazita, eta baita zer eskaera ez dituen aintzat hartu eta zer arrazoitan oinarritu den ere.

Udaleko iragarki taulan eta [www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus) web orrian ere behin-behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Behin betiko ebazpena egiteko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa da, dagokion deialdian zehazten den epetik kontatzen hasita. Epe hori ebazpena espreski jakinarazi gabe igarotakoan, pertsona edo erakunde eskatzaileek ezetsizat jo ahal izango dituzte beren dirulaguntzarako eskaerak.

Dirulaguntza ordaintzea: Behin betiko dirulaguntzaren jakinarazpena eman dela jakinarazi ondoren, ordainketa tramitatuko da. Eta kontuan izango dira, halaber, Oiartzungo Udalaren diru laguntzei buruko Ordenantzaren VII. Tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.

Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren %80a ordainduko da, eta honetarako ez zaie inongo bermerik eskatuko onuradunei. Gainerako %20a, eskaera egiteko aurkeztu zen aurrekontuari dagokion gastua justifikatu ondoren ordainduko da.



Hitzarmen honen baitan ematen den dirulaguntzaren justifikazioa ikasturtea amaitu eta 3 hilabetera egin beharko da, beti ere, irailaren 30a baino lehen.

Justifikazioa egiterakoan kontuan hartuko da dirulaguntza emateko orduan oinarriztat hartu zen gastuaren aurrekontua, eta benetako gastua. Proporzionaltasunaren araua aplikatuko da, beti ere emandako dirulaguntzaren mugaraino. Eta kontuan izango dira, halaber, Ordenantza Orokorraren VIII. Tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.

## **10. ARTIKULUA.- Onuradunen betebeharrak**

Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituztenek, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte.

Erakunde edo elkarte onuradunak diruz lagundutako jardueran honako parekidetasun arloko eskakizunak bete beharko ditu:

- Diruz lagundutako jarduerari buruzko informazio, publizitate eta propaganda guztietan, lengoaia eta irudi mota guztien erabilera ez sexista egingo dute, sortzen diren dokumentu eta euskarrietan.
- Eskaera, izen-emate orri, memoria guztietan antolatzaile eta erabiltze edo onuradunen datuak sexuagatik desagregatuta jaso beharko dira.
- Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.
- Elkarte eta erakunde guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoen artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte.
- Organo emaileari, hala badagokio, edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, nazional zein nazioartekotatik diruz lagundutako jarduerara finantzatzen duten beste diru laguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak lortu izana jakinarazi.
- Diru laguntzaren emakidarako kontuan izan den edozein gertaera objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinarazi.
- Diruz lagundutako jardueraren hedapen ekintzetan, jasota geratu beharko du Oiartzungo Udalaren diru laguntza bidezko lankidetzak.
- Jardueran aritzean, pertsonaren funtsezko eskubideekiko behar den errespetua erakutsiko da eta indarrean diren legeak errespetatuko dira.

## **11. ARTIKULUA.- Dirulaguntza justifikatzea**

Diru-laguntza justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunak jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

1. Eskaera orria.
2. Eginiko eta diruz lagundutako jardueraren azalpen memoria.
3. Gastu eta diru sarreraren balantzea.
4. Aurkeztutako justifikanteen zerrenda.



OIARTZUNGO  
UDALA

5. Eginiko gastuaren frogagiriak. Eginiko gastuen egiaztagiria (fakturak) eta horien zerrenda. Egiaztagiri hauek, ezinbestez, dirulaguntza eman zeneko helburu eta ekintzei dagozkien gastuei buruzkoak beharko dira izan. Ez dira onartuko beste helburu batzuetarako egindako gastuen egiaztagiria. Justifikazioa egiterako orduan kontuan hartuko da dirulaguntza ematerako orduan oinarritzat hartu zen gastuaren aurrekontua, eta benetako gastua. Proporzionaltasunaren araua aplikatuko da, beti ere emandako dirulaguntzaren mugaraino. Egiaztagiriek Oiarzungo Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak ezarritako ezaugarriak bete beharko dituzte.
6. Jasotako beste diru laguntzen zerrenda
7. Ekintzari buruzko lau argazki formatu digitalean. (Argazki hauek udalak herri intereserako helburuetarako erabili ahal izango ditu).
8. Programa, publikazio eta kartel iragarleen bi ale. Halaber, jardueraren inguruan sorturiko edozein eratako dokumentazio grafiko zein idatzizko Oiarzungo Udala agertu beharko da jardueraren babesle moduan egingo den publizitate guztian.

Ekintzak egin ahala justifikatu ahal izango dira, gehienez ikasturtea bukatu denetik hiru hilabeteko epean, beti ere, irailaren 30a baino lehen.

## **12. ARTIKULUA.- Dirulaguntza itzultzea**

Deialdi honetako 12. artikulua ezartzen duena betez, diru-laguntza eman deneko jardueraren gastuaren aurrekontuari dagokion gastua justifikatzen ez bada, diru-laguntza osoa edo zati bat eta dagokion berandutze-interesa itzuli beharko da, Oiarzungo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren IX. Tituluak arautzen duen prozedura jarraituz.

## **13. ARTIKULUA.- Araudi osagarria**

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Oiarzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena eta Herri Administrazioetako dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.

## **I. ERANSKINA.- Ikastetxe edo guraso elkarteek antolatutako hezkuntza arautuz kanpoko urteko ekintza programak**

### **14. ARTIKULUA.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta irizpideak.**

Dirulaguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera finkatuko da, aurrekontuan erabilgarri dagoena eta jarraian deskribatzen diren kuantifikazio irizpideak jarraituz.

#### 4.1. Dirulaguntzak emateko irizpideak

Dirulaguntzak ematean, oro har, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

<b>Ikasle kopurua</b>	
Ikasle bakoitzeko	Puntu 1
Bereziki sustatutako modalitateetan (Euskal Dantza, Antzerkia, Bertsolaritza...), ikasle bakoitzeko	3 puntu



OIARTZUNGO  
UDALA

<b>Irakasleen titulazioa, dagokion arloan, euskaran eta genero-berdintasuneko gaietan</b>	
Irakasten duen ekintzarekin zer ikusia duen arloan ikasketak	8 puntu irakasle bakoitzeko
EGA edo baliokidea	4 puntu
2. Hizkuntz eskakizuna edo baliokidea	2 puntu
Hezkidetzan, feminismoan edo genero kontuetan trebakuntza	4 puntu irakasle bakoitzeko: Ikastaroak < 10 ordu: 1 puntu Ikastaroak 10-50 ordu: 2 puntu Ikastaroak > 50 ordu: 4 puntu

<b>Emakumezkoen parte-hartzea sustatzeko berariazko ekimenak</b>	
Ekintzan emakumezkoen eta gizonezkoen parte hartzean oreka lortzeko neurriak hartzea	2 puntu neurri bakoitzeko
Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea ekintzetan	2 puntu neurri bakoitzeko, gehienez 4.
Ekintzan ikuspegi estereotipatuak desagerraraztea eta genero-rolak apurtzea sustatzea.	2 puntu neurri bakoitzeko, gehienez 4.

<b>Bazterkeria arriskuan dauden kolektiboak erakartzeko ahalegina (haurrak, gazteak, emakumeak, adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak, atzerriko jatorria duten pertsonak)</b>	
Kolektibo 1	5
> 2 kolektibo	10

Irizpide hauekin eskaera bakoitza baloratu ondoren, dagokion diru partidan gordetako dirua eskatzaile guztien artean proportzionalki banatuko da.

#### 4.2. Aurrekontua

Dirulaguntza hauek ordaintzeko, (eskolorduz kanpokoak + ikastetxe jaialdiak) guztira, 13.000 € euroko izendapena eginda dago, Oiartzungo Udalaren 2024 urteko aurrekontuko 1 0311.481.326.00.01.2024 eta 1 0312.481.326.00.01.2024 zenbakidun partiden kontura.

#### 4.3. Gehienezko dirulaguntza eta aldaketak

Oinarri hauetan araututako diru laguntzen zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, bestelako laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.



OIARTZUNGO  
UDALA

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolana ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo dirulaguntza hauekin batera laguntzak jasoz gero, gerta daiteke dirulaguntza emateari buruzko ebazpena aldatzea.

## II. ERANSKINA.- Ikasturte amaierako jaialdien antolaketarako dirulaguntzak.

### 15. ARTIKULUA.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta irizpideak.

Dirulaguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera finkatuko da, aurrekontuan erabilgarri dagoena eta jarraian deskribatzen diren kuantifikazio irizpideak jarraituz.

#### 4.1. Dirulaguntzak emateko irizpideak

Parte- hartzaile, ikusle, antolatzaile kopurua guztira	Puntuak gehienez: 20
<100	5
101-300	10
>300	20

Aurrekontua eurotan	Puntuak gehienez: 20
0€-500€	0
501€-1000€	5
1001€-2000	10
2001€-5000€	15
>5001€	20

Aurrekontuan elkartearen ekarpena	Puntuak gehienez: 20
% 20a baino gutxiago jarri du onuradunak	0
% 20 - 39 bitartean jarri du onuradunak	5
% 40 - 59 bitartean jarri du onuradunak	10
% 60 - 79 bitartean jarri du onuradunak	15
% 80 - 99 bitartean jarri du onuradunak	20

Emakumezkoen parte-hartzea sustatzeko berariazko ekimenak	Puntuak gehienez: 14
Emakumezkoen eta gizonezkoen parte hartzean oreka lortzeko neurriak ikuskizunean (2 p) , ikuslegoan (2 p) eta antolaketan (2 p).	2 puntu atal bakoitzeko, gehienez 6.
Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.	2 puntu neurri bakoitzeko, gehienez 4.





OIARTZUNGO  
UDALA

Ekintzan ikuspegi estereotipatuak desagerraraztea eta genero-rolak apurtzea sustatzea.	2 puntu neurri bakoitzeko, gehienez 4.
--	--

<b>Bazterkeria arriskuan dauden kolektiboak erakartzeko ahalegina (haurrak, gazteak, emakumeak, adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak, atzerriko jatorria duten pertsonak)</b>	<b>Puntuak gehienez: 10</b>
Kolektibo 1	5
> 2 kolektibo	10

<b>Ekintza-proposamenaren kalitatea</b>	<b>Puntuak gehienez: 20</b>
Aurrekonturen zehaztasuna	4
Giza baliabideen zehaztasuna	4
Baliabide materialen zehaztasuna	4
Egitarau zehazta eta hausnartua	4
Hizlari, artista, talde edo parte hartzaileen curriculuma	4

Irizpide hauekin eskaera bakoitza baloratu ondoren, dagokion diru partidan gordetako dirua ekitaldi guztien artean proportzionalki banatuko da.

#### 4.2. Aurrekontua

Dirulaguntza hauek ordaintzeko, (eskolorduz kanpokoak + ikastetxe jaialdiak) guztira, 13.000 € euroko izendapena eginda dago, Oiartzungo Udalaren 2024 urteko aurrekontuko 1 0311.481.326.00.01.2024 eta 1 0312.481.326.00.01.2024 zenbakidun partiden kontura.

#### 4.3. Gehienezko dirulaguntza eta aldaketak

Oinarri hauetan araututako diru laguntzen zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, bestelako laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolanahi ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo dirulaguntza hauekin batera laguntzak jasoz gero, gerta daiteke dirulaguntza emateari buruzko ebazpena aldatzea.



OIARTZUNGO  
UDALA

## I. ERANSKINA Proiektuaren, jardueraren edo programaren txostena

### I. ERANSKINA.- Ikastetxe edo guraso elkarteek antolatutako hezkuntza arautuz kanpoko urteko ekintza programetarako.

Eskatzaileak nahi izanez gero, eranskin honen ordezt gutxienez ondorengo alderdiak deskribatzen dituen txosten propioa ekarri ahal izango du.

**1. PARTE HARTZAILEAK.** Ekintza bakoitzeko fitxa bat eta eskolorduz kanpoko guztiekin batura eginez beste bat bete behar da.

<b>Antolakuntzan</b>		
Emakumeak	Gizonak	Guztira
<b>Ikasleak/Ikusleak/Erabiltzaileak</b>		
Emakumeak	Gizonak	Guztira
<b>Parte hartzaileak ekintzan</b>		
Emakumeak	Gizonak	Guztira

### 2. DESKRIBAPENA



OIARTZUNGO  
UDALA

### 3. HELBURUAK

--

### 4. EKINTZAK GAUZATZEKO EGUNAK ETA TOKIAK

Jarduera	Eguna	Tokia

### 5. PROIEKTUAREN HARTZAILEAK. NORI ZUZENDUA DAGO EKINTZA?

Ekintza bakoitzeko hartzaileen deskribapena egin.

*Erantsi atal honetan (edo berezitako zerrenda batean) ekintza mota ezberdinak eta bakoitzaren ikasle-zerrenda.*

*Ikasle-zerrenda:*

*Erantsi era berean guztirako kopuruak ekintza bakoitzeko sexuagatik desagretuta.*

Ekintza	Emakumeak	Gizonak	Guztira



OIARTZUNGO  
UDALA

## 6. GIZA BALIABIDEAK

Ekintza bakoitzeko giza baliabideen zerrenda eta deskribapena egin.

*Zenbat pertsona beharko dira antolakuntzan? Zein betebeharrak izango dituzte?  
Erantsi atal honetan irakasleen zerrenda eta bakoitzaren titulazioa (alor bakoitzekoa,  
euskara alorrekoa edo hezkidetzakoa).*

*Irakasle zerrenda eta titulazioak erantsi:*

*Erantsi era berean giza baliabideen kopuruak ekintza bakoitzeko sexuagatik  
desagretuta.*

Ekintza	Emakumeak	Gizonak	Guztira

## 7. BALIABIDE MATERIALAK ETA AZPIEGITURAK\*

\* Baliabideak hemen zehazteak ez du esan nahi horiek udalak jarri behar baditu eskaera egin behar ez denik.

--

## 8. PAREKIDETASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK

*Emakumezkoek eta gizonezkoek parte hartzeko landutako neurriak:*

*Proiektuan genero ikuspegia txertatzeko neurriak:*

*Bereizkeria anizkoitza dutenen parte hartzea errazteko neurriak:*

*Ekintzan ikuspegi estereotipatuak desagerrarazteko eta genero-rolak apurtzeko neurriak:*



## I. ERANSKINA Proiektuaren, jardueraren edo programaren txostena

### I. ERANSKINA.- Ikasturte amaierako jaialdien antolaketarako.

Eskatzaileak nahi izanez gero, eranskin honen ordezt gutxienez ondorengo alderdiak deskribatzen dituen txosten propioa ekarri ahal izango du.

#### 1. PARTE HARTZAILEAK

<b>Antolakuntzan</b>		
Emakumeak	Gizonak	Guztira
<b>Ikasleak/Ikusleak/Erabiltzaileak</b>		
Emakumeak	Gizonak	Guztira
<b>Parte hartzaileak ekintzan</b>		
Emakumeak	Gizonak	Guztira

#### 2. DESKRIBAPENA



OIARTZUNGO  
UDALA

### **3. HELBURUAK**

--

### **4. EKINTZAK GAUZATZEKO EGUNAK ETA TOKIAK**

<b>Jarduera</b>	<b>Eguna</b>	<b>Tokia</b>

### **5. PROIEKTUAREN HARTZAILEAK. NORI ZUZENDUA DAGO EKINTZA?**

--



## 6. GIZA BALIABIDEAK

*Zenbat pertsona beharko dira antolakuntzan? Zein betebeharrak izango dituzte?*

## 7. BALIABIDE MATERIALAK ETA AZPIEGITURAK\*

\* Baliabideak hemen zehazteak ez du esan nahi horiek udalak jarri behar baditu eskaera egin behar ez denik.

## 8. PAREKIDETASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK

*Emakumezkoek eta gizonezkoek parte hartzeko landutako neurriak:*

*Proiektuan genero ikuspegia txertatzeko neurriak:*

*Bereizkeria anizkoitza dutenen parte hartzea errazteko neurriak:*

*Ekintzan ikuspegi estereotipatuak desagerrarazteko eta genero-rolak apurtzeko neurriak:*



OIARTZUNGO  
UDALA

## II. ERANSKINA Programaren gastuen eta sarreraren aurrekontua

II. Eranskina bi aldiz bete behar duzue:

- Ikastetxe edo guraso elkarteek antolatutako hezkuntza arautuz kanpoko jarduera programa, ikastaro edo tailer guztiak batuta.
- Ikasturte amaierako jaialdirako.

Gastuak (azalpena)	Zenbatekoa
<b>GUZTIRA (A)</b>	

Sarrerak (azalpena)	Zenbatekoa
<b>GUZTIRA (B)</b>	

Emitza	Zenbatekoa
Emitza, guztira (A-B)	

Udalari eskatzen zaion dirulaguntza	Zenbatekoa

Elkarteak bere diru-iturrietatik jarritakoa edo lortutakoa	Zenbatekoa





OIARTZUNGO  
UDALA

### III. ERANSKINA Zinpeko aitortpena

Eskatzaileak hau aitortzen du:

- Ez dagoela sartuta diru-laguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.
- Onuraduna, Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan eta Foru Ogasuneko Betebeharretan eguneratuta dagoela.
- Elkarteak, kideak aukeratzekoan edo jardunean ez duela inor deusengatik baztertzen.
- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.1 eta 21.bis. artikuluetan ezarritakoaren arabera, elkarteak:
  - Ez duela sexuan oinarrituta edo 3.1 artikuluan adierazitako diskriminazio anizkoitzeko inguruabarretan oinarrituta diskriminatzen duten jarduerarik burutuko.
  - Ez duela ez eta sexuan oinarrituta diskriminazioa egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat jaso.
  - Berdintasun-plan bat indarrean baduela.
  - Estatu-legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak badituela.
  - Ez duela urratzen emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa honakoei dagokionez: helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua eta/edo estatutuetan.
  - Ez duela Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ondoriozko debekurik.
  - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betekizunak betetzen direla.
  - Onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan ez duela sexuagatiko bereizkeria egiten.

- Laguntza eskabide honez gain ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko nahiz pribatuk emana.

EDO

- Laguntza eskabide honez gain helburu bererako beste laguntzak jaso edo eskatu dituela, beheko erakunde hauei:

Erakundea	Zenbatekoa	Egoera (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratua)



OIARTZUNGO  
UDALA

--	--	--

- Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi diru-laguntza eskabiderik eginez gero, Oiartzungo Udalari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain.
- Aitorpen honetan nahiz eskaeran eta eskaerari erantsita dauden dokumentuetan azaltzen diren datuak egiazkoak dira, eta ezagutzen eta onartzen ditu diru-laguntzen araudian ezarritako baldintzak.
- Badakiela, ez-betetzeek edo emandako informazioaren eta dokumentazioaren zuzentasun ezak erantzukizun penal, administratibo edo zibilak ekar ditzaketela.
- Ezagutzen eta onartzen ditu abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzekoak, ezartzen dituen baldintzak

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

(Data eta sinadura)